

Leire Salaberria ilustratzaile andoaindarrak bisita gidatua egingo du ostiral honetan Basteron

Bastero Kulturguneko erakusketa gelaren 2021 urteko jarduerari hasiera emateko, Leire Salaberriak, ilustratzaile andoaindarrak, urteetan egindako ilustrazio eta lanen inguruan bisita gidatua eskainiko du datorren ostiralean, urtarrilak 15.

Bisita arratsaldeko 18:00etan hasiko da, erakusketa gelako aforoa mugatua denez beharrezkoa izango da bisita erreserbatzea. Izena emateko, Bastero Kulturguneko leihatilara gerturatu edo telefonoz 943 303540 zenbakian egin beharko da. Izena emateko azken eguna osteguna izango da.

Bestalde, gogorarazten da gaur ipintzen dela martxan publiko orokorarentzako sarrera salmenta. Sarrerak modu elektronikoan erostea gomendatzen da (kutxabank), sarrerak inprimatu behar ez izateko. Hala ere, aurrez aurreko salmenta aukera izango da, goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:30- 19:30, ohikoa den moduan, Bastero sarrerako harrera-gunean eskuratu ahal izango dira. Publiko orokorrak, pertsona bakoitzeko 5 sarrera erosi ahal izango ditu gehienez ere.

Andoain, 2021eko urtarrilak 11

La ilustradora andoaindarra Leire Salaberria realizará este viernes una visita guiada en Bastero

El próximo viernes, 15 de enero, Leire Salaberria, ilustradora andoaindarra, ofrecerá una visita guiada para conocer las ilustraciones y trabajos realizados durante años.

La visita comenzará a las 18:00 de la tarde, y ya que el aforo de la sala de exposiciones es limitado será necesario reservar la visita. Las inscripciones se realizarán en la taquilla del Centro Cultural Bastero o en el teléfono 943 303540. El último día para apuntarse será el jueves.

Por otro lado, se recuerda que hoy se pone en marcha la venta de entradas al público en general. Se recomienda comprar las entradas de forma electrónica (kutxabank) para no tener que imprimirlas. No obstante, la venta presencial se podrá realizar de 10:00 a 13:00 horas por la mañana y de 16:30 a 19:30 por la tarde, como es habitual, en la recepción de entrada a Bastero. El público en general podrá adquirir un máximo de 5 entradas por persona.

Andoain, 11 de enero de 2021